

DONOZTIRIKO J.B. ETCHEBERRY ZENA

Donostia, 1996-01-26

1996.ko urtarrilaren 8.an Kanbon zendua eta biharamunagoan Donoztirin ehortzia, 20.garren mende honi bere marka utzi dion apez eta euskal idazlea izan da J.B. Etcheberry Donoztirikoa.

Hamahiruko konduarekin ba omen dute zerbait auzi erdalzale batzuek, ikarutzen ere dituen. Gure apez euskaldunak ez, hurbiltzekorik ere. Beha bada: helduden marxoaren 13-an beteko zituen bere 93 urteak, hamahiru seme-alabako hamahirugarren ume horrek. Eta hamahiru liburu, haundi eta ttipi idatzi ditu apez langile, arraillant eta bihotz haundikoak, bere apezlan guzien artetik, konduaren gaineko, eta jostatuz bezala.

1903.ko martxoaren 13-an sortu zen Donoztiri Basagaitzeko azken haurra, zortzi-garren mutikoa. Familia girixtino hartan hori izan zen, azken etorria, Elizarendako: 25 urtetan helduz apeztasunerat 1928-ko uztailearen 15-ean. Apeza nasai zen denbora hartan, Uztaritzeko semenarioan ukan zuen lehen zerbitzua, ez baitzuten geroztik ahanztekoa Piarres Larzabal Zokoko erretor euskaltzainak, Pile Iturburu Zuraidekoak, Mafex Arbeletche Bidarraikoak eta besteek, beren adinik gurienean zirelarik, ukana zulen zainzale-hezle bipil bezain goxoa.

Bazen beste baliagarririk holako baten talendu aberatsarentzat eta horra non apezpikuak igortzen duen Hazparneko Misionestegirat Ipar Euskal Herri guzian gaindiko elizetan predikari bederatzitik urtez uztailearen 27-an. Hor bai emanen duela bere negurria: herriz herri kominione eta misione predikatzen, denetan apez edo entzuleen aldetik arraketa haundia, liburutto bat ere idatziko du Hazparneko Misionestena, hor ukan dituen lagunak (Mendy, Duhalde eta Francketik Mailluquet eta bi Soubelet etarainokoak aipatuz, laburzkiegi ainitzen arabera. Arrazoi bat emaiten zion berak labur aipatze horri eta hauxe zen: karitateari hutségin beldur zela. Funtsean, arrazoi berak gaitu zerbait goserekin utzi liburu horietan guzietan: Etcheberryk zaukan kondari dohain jostakin ezin atertua ez duela egundaino osoki laxatu eta libratu bere liburuetan, ez nahiz "norbaiti hutségin". Alta hainbeste zakielarik bere solasetan ezagun ohiez mintzo zelarik.

Adin bat bada halere hola kurrituz ibiltzeko. Horra beraz non herriko erretor leku bat ukanen duen lehenik, eta beste bat geroxago. Arbonarat igorria da 1940-ko abuztuaren 22-an, gerla denboran. Ez pasaturik ere bi urte pasaxe baino gehiago hor, izan dira frogak egun hauetaraino, ez dela segur ahanztzia herri hortako artzain ohia.

Urruñako herria zen, bere neurri zabalarekin Etcheberry apezaren izarikoa. 18 urte emanen ditu hor 1942-tik 1960.rat: bere bikario ala bi eskolelako mutikoena eta neskatxena erakasle iraide-serorekin ala herritarrekin, orotaz maitatua, han utzi dituen obrak bestalde: elizan, eskola girixtinoetan ala Oletako kaperan (hau berritarik eginez, Mixel Garikoitzena), eta beste zenbat egintza, gutiago ageri direnetaraino!

Eri, xahar eta behartsuak behar dira ohorezko lekuan ezarri Etcheberryren bizian ere, bera baitzen zinez haiekilakoa. Horietarat du igortzen Baionako apezpikuak 1960-ko azaroaren 3-an Baionako ospitaleko apez-omonier, 23 urtez hor eginen baitu bere biziko zerbitzu luzeena, denek, ezinduen familiak eta bisitariak barne, prezatu dioten bihotz kartsu harekin. Eta azken lana, hau arinxagoa baina bere adin haundiaren hainekoa, Baiona Largenteko seroren apez omonier. Guziek, eta ikastetxe hortako haur gazteenetarraino, gogoan izanen dute luzaz, apez xahar hori: iduri beste denbora bateko itxuran, eta bizkitartean beti irria ezpainetan; beti ixtorio txiste zenbait ezpainetan, eskarnio maitekor bat ez zuelarik, aspaldiko oroitzapenekin, jostaganak zinez, nor-nahirekin, nungo-nahikoez, bakotxari barea ateratzen ziola.

Ukainen zituen bisitak bestalde, mota guzitakoak: batean errugbilari bat, nazioarteko lehiaketetan ibilia, edo pilotari haundi, hauk ere bere liburu-artikuluetan eta zenbat hitz amultsuz noizbait hunkituak, edo... berdin apezpiku ala "Garaziko" edo mundu zabalako... etxerik gabeko horietarik nolazbait "adixkide" egina hau ere; gizonak gizona balio zuen horrentzat.

Kanboko apez xaharren egoitzan, bere azken sei urteetan izanen ditu holako bisitak, ala bertsulari bat ala negoziolari bat, hauk azken egunetakoak oraino, eritasunik, gelditu eta oheratuzkorik ez baitu kasik ezagutuko ere berak ondarreraino.

Eta idazlea? Eta euskalzalea? Etcheberry-ren 13 liburuak baino lehen ezartzekoak dira Piarres Lafitte kalonje zenaren denborako idatz-lanak, aldebatekoak. Kasetalaritzan ez du Etcheberryk izenik erabili. Baina, ixil-ixila, hor zuen Donoztirikoa Lafittek maiz ondoan, behartzen zen guziek. Gazte denborako bere ikasle laguna baitzuen, bi urtez gazteagoa, zertako ez erran Etcheberry izan duela Lafittek bere Almanakan laguntzaile hoberena, bere betiko kondaira ixtorio labur eta "betegailuekin", berak zion bezala.

Hor du Euskaltzain urgazle titulua bilduko, Lafitten proposamenduz naski bere euskara zirtodun zoragarriaren eta ordu hartarainoko lanentzat.

Orduantxe da, 1959-an, 56 urtetan, liburu egiten hasiko, *Zeruari buruz* ateraz eta besteak segidan, 1991-an hamahirugarrena. Euskara, iturrikoa: bada hain zuzen iturri urtsu on bat urrunerat ere bere ura igortzen duena Basagaitzeko etxearen auzoan, Uhaldegaraikoa. Ur hura iduri zuten beren euskaran Basagaitzeko haurrideek eta haietan Jan Battitt apezak: burrusta oneko euskara, dena itxurapen, zirto eta erran zahar. Ez ote digu guhauri egun batez Euskaltzain batek erran eta ez nornahik (Koldo Mitxelena) liburu horietarik irakurri-ta: "Nik Etcheberry Donoztirikoa ezagutuz geroz, daukat berriz ikastekoa dudala euskara!".

Euskara ez zuk, Mitxelena, baizik Donoztirikoarena bai, parte! Eta zer izanen zen, Mitxelena, Etcheberry izan balitz gainerat zu zinen bezalako apaintzalea! Harrobia izan da Etcheberry. Guk iker dezagula.

Etcheberryren liburuak:

1. *Zeruari buruz* (1959). 2. *Michel Garicoitz*. 3. *Frantziako Erregina* (1966). 4. *Obrak mintzo* (1969). 5. *Han Hemenka*. 6. *Orotarik* (1974). 7. *Azken buruxkak*. 8. *Berriz ere beretarik*. 9. *Hazparneko Misionestak*. 10. *Orhoitgarriak* (1986). 11. *Denetarik* (1988). 12. *Ene Orhoitean* (1989). 13. *Lehengo eta Oraiko gora-beherak* (1991).

Emile Larre